

# Ludwig Wittgenstein: *Tractatus Logico-philosophicus*

- A. Proposizioak
- B. Objektuak, gauza-egoerak eta gertakariak
- C. Zentzua eta egia
- D. Proposizioa irudi gisa
- E. Logika eta Zientzia
- F. Hizkuntzaren mugak

# A. Proposizioak

- 1. 'Pentsamendua' gogo egintza da, egiazkoa ala faltsua dena. (3-3.02, 3.1)
- 2. 'Proposizioa' pentsamendua hitzetan adieraztea da. (3.1-3.14)
- 3. Proposizio oro elementala edo proposizio elementaletan analizagarria da. (4.21-4.23)
- 4. (3) esatea da proposizio oro proposizio elementalen egi-funtzioa dela esatea. (4.5-5)
- 5. Proposizio elemental bat da izen batzuk erlazio batean. (4.5-5)

# B. Objektuak, gauza-egoerak eta gertakariak I

- 6. Izena objektu sinple baten ordean dago; hau da haren esanahia. (3.2-3.22)
- 7. Izenak proposizio baten testuinguruan bakarrik du esanahia. (3.25-3.3)
- 8. Objektuak beste objektuekin konbinatzeko gai izan behar du. (2.011-2.02, 2.03-2.063)
- 9. Gauza-egoera bat da objektuak erlazioan, erlazioan diren objektu taldeetan areago banatu ezin dena; atomikoa da. (2.011-2.02, 2.03 -2.063)

# B. Objektuak, gauza-egoerak eta gertakariak II

- 10. Proposizio elementalak gauza-egoera baten existentzia baiesten du. (4.21-4.23)
- 11. Gertakaria gauza-egoeren multzo bat da. (1-2.01)
- 12. Objektu bakoitzak bere 'forma' bakarrik determinatzen du; alegia, gauza-egoera baten azaltzeko posibilitatea. (2.0123-201231, 2.0141, 2.0231-2.0233)
- 13. Objektuek berdinak izaten jarraitzen dute; beren konfigurazioa da aldatzen dena. (2.0231-2.0272)

# C. Zentzua eta egia I

- 14. Proposizio elemental batek gauza-egoera posible bat aurkezten du, hori da bere 'zentzua'. (4.21-4.23, 2.15-2.225, 3.14-3.144)
- 15. Proposizio ez-elemental batek gertakari posible bat aurkezten du, hori da bere 'zentzua'. (2.15-2.225, 3.14-3.144)
- 16. Proposizioak zentzu jakin bat eduki behar duenez, objektu sinpleak egon behar dira. (3.23, 2.021-2.023, 2.026)

## C. Zentzua eta egia II

---

- 17. Mundu posibleez esanahikortasunez mintzatu ahal izateko ere objektu sinpleak egon behar dira. (2.021-2.023, 2.026)
- 18. Proposizio bat egiazkoa da bere zentzua errealitatearekin bat badator; bat ez badator, faltsua da. (2.15-2.225, 3.14-3.144)

# D. Proposizioa irudi gisa I

- 19. Proposizioa ez da entitate tipo berezi bat; proposizio-zeinua da, gertakari edo gauza-egoera posible bat aurkeztu edo 'proiektatzeko' erabiltzen dena. (3.1-3.14)
- 20. Proposizio-zeinu baten elementuak hitzak dira. (3.1-3.14)
- 21. Proposizio-zeinua ez da hitz multzo soila, gertakaria baizik, i.e., bere elementuek egitura dute. (3.14-3.144)

## D. Proposizioa irudi gisa II

- 22. Proposizioak zerbait egiazkoa edo faltsua dio, irudia den heinean. (4.01-4.016)
- 23. Proposizioa irudia denez, zentzu berri bat komunikatu ahal du. (4.02-4.032)
- 24. Proposizioa irudi bat da, bere elementuak objektuekin korrelazionatzen baitira eta elementu haiek elkarren artean erlazio jakin bat izateak (gertakariak) objektuak antzeko erlazioan direlako gertakari posiblea aurkezten baitu. (2.1-2.1515, 3.1-3.144)



## D. Proposizioa irudi gisa III

- 25. Proposizio faltsu bat esanahiduna da, aurkezten duen gauza-egoera ez existitu arren, proposizioko elementuekin erlazionatzen diren objektuak existitzen direlako, eta bere erlazioen bidez elementuek gauza-egoera edo gertakari posible bat aurkezten dutelako. (2.021-2.026)
- 26. Proposizio orok forma logikoa du errealitatearekin komun. (2.18-2.2, 4.01-4.015, 4.022-4.024, 4.12-4.1212)

## D. Proposizioa irudi gisa IV

- 27. Forma logikoaz hitz egitea egitura posibilitateaz hitzegitea da; da esatea proposizioko elementuekin korrelazionatzen diren objektuak haien arteko erlazioekin bat datozen erlazioetan ***egon daitezkeela***.
- 28. Forma logikoa erakutsi bakarrik egin daiteke; ezin dugu esan proposizio baten forma logikoa zein den.

# E. Logika eta Zientzia I

- 29. Logikako proposizioak tautologiak dira.
- 30. Zentzu hertsian, ez dira proposizioak ez baitute zentzurik eta beraz ez baitute ezer esaten. (4.46)
- 31. Proposizio beharrezko guztiak logikako proposizioak dira.

# E. Logika eta Zientzia II

---

- 32. Ez dago, beraz, objektuen arteko lotura kausalik.
- 33. Zientziaren axiomek ez dira ez tautologia ez proposizio enpiriko; hiztegi bat ezartzen dute naturaz behar den egokitasunez deskribatu ahal izateko.

# F. Hizkuntzaren mugak I

- 34. Egia ez da objektu bat.
- 35. *Ak  $p$  uste du* esatea ez da esatea  $A$  objektu batek  $p$  proposizioarekin erlazio bat duela.
- 36. Nire hizkuntzaren mugak nire munduaren mugak dira; baina hau ezin da esan, erakutsi bakarrik.
- 37. Esan daitekeena natur-zientzietako proposizioak dira.

## F. Hizkuntzaren mugak II

- 38. Etikak eta erlijioak, zentzu hertsian, ez dute proposiziorik; bere burua erakusten dute.
- 39. Filosofiak natur-zientzien mugak ezartzen ditu esan daitekeena erakutsiz.
- 40. Filosofia hizkuntzaren kritika ere bada, proposizioak argitzen baititu, gure hizkuntzaren logikaren ulertze gabeziek eragindako akatsak zuzenduz.

# F. Hizkuntzaren mugak III

---

- 41. Filosofia osoa dago horrelako akatsez beteta.
- 42. Filosofia ez da natur-zientzia ez logikaren adarra.
- 43. Filosofiako proposizioak zentzugabeak dira, argitu dezaketen arren.

---

THE END